

DONOSTIAKO ADIERAZPENA, HIRI BARRUKO ELKARBIZITZAREN ALDEKOA

Orripean izenpetzen duten hiriek, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren egoitza den Donostiako Aiete jauregian elkartuak, ondokoa onartu dute

ADIERAZPENA


1.- Gure hiriak mundu globalizatu eta elkardependente baten isla dira, eta garai hauei dagozkien hainbat jatorritako arazo, kontraesan eta istiluak adierazten dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, hirietan elkarbizitza eta gizarte kohesioa lortzeko zailtasun larriak izaten dira.

Eta geure arazoak ezberdinak diren arren, helburu bera dugu, hain zuzen ere, gizon eta emakume guztiok herritartasuna osorik erabili ahal izatea zailtzen duten oztopoak gainditzen eta oinarritzko eskubideak bereganatzen laguntzen duen kultura zibiko bat defendatzea; baita jarrera bortitzak, intoleranteak eta xenofoboak gaitzestea ere.

2.- Hiriak elkar topatzeko eta ezagutzeko, kultur artekotasunerako eta berdintasunezko garapenerako gune bihurtzeko bizipenetan eta ahaleginetan partaide izateak, hau da, giza eskubideak sustatzeko nahitaezko gune izan behar horrek, oso-oso sentiberak egin gaitu hiriok izan behar dugun eginkizunarekiko, bizi gaituen krisialdia (ekonomikoa, eta politikoa, herritarrak fio ez direlako erakundeekin eta balio demokratikoekin) gainditzeari, elkarbizitza eraikitzeari eta indarkeriazko egoerak gainditzeko adiskidetze eta herritar konkordiazko prozesuei dagokienez.

3.- Hiriak aro modernoan pertsonak onartu eta gizarteratzeko lekuak izan dira, baita identitate nahasketa ere, betiere kultur aniztasuna aberastasuntzat errespetatzea hartuta eta mugaz gaindiko zirkulazio askea hiritartasun kosmopolitaren adierazgarritzat hartuta, etnia, nazionalitate, kultura edo xenofobia arrazoiak direla eta migrazio bazterkeriarik egin gabe.



Hiriak, alde horretatik, eskubide horien babes eta berme guneak dira, autoktonoen eta inmigranteen arteko hartu-emanek eta bizi eta zorientasun proiektuen bila doazen gizakien joan-etorriek sortzen duten harreman sozialen nahasketarenak; eta, horrek, aniztasunean bizitzea eta hirietan berrikuntzari eta sormenari bidea egiten dio.

Hiriko polifonian, orain gozaten dugun aniztasunaren esperientzia eta jakintzak geureganatu eta estimatu ditugu gizakiok, gizon eta emakumeok.

4.- Baina egia da, bestalde, hirietan gordin-gordin agertzen direla globalizazioaren ondorio negatiboak eta hizkuntza, kultura, gizarte edo identitate auziengatik taldeak elkarren aurka istilutan aritzea. Horra zergatik sortzen diren gatazka, segregazio edo bazterkeriazko eremu moduan.

Hortaz, gure ustez, aukerak eskaintzeko lekuak izan behar dira hiriak, non tokian tokiko gobernuek tinko eta herritarren partaidetzarekin jardun behar duten gizarte ezberdintasunak berriro orekatzeko. Era berean, bake kultura eta elkarbizitza baketsua izango duten lekuak izan behar dira, pertsona guztientzat, aniztasuna eta norberaren identitatea aitortu eta errespetatuz.


5.- Horregatik, hirian bertan jardun behar dugu gatazkek gizatiartzen eta alderdi guztiak erantzukizunean kide egiten, besteek beharturiko edo norberak aukeraturiko bazterkeriari gizarteratzeaz aurre egiteko helburua gauzatzeko.

Justiziazko bakearen, gizarteratzearen, kulturartekotasunaren, arrazoia indarraren aurretik jartzen duen gatazken konponbidearen, bake hezkuntzaren eta elkarbizitzaren aldeko lana ez da alkate garen aldetik dagokigun erantzukizunetik at dagoen eginkizuna, konpromiso politiko bat baizik, tokian tokiko gobernantzako zeregin guztiak barruan hartu eta

politika publikoetan gauzatuko dena, eskubideak bermatuz hirigintzatik eta etxebizitzatik ekologiara, hezkuntzatik edo kulturatik igarota.

Alor horiek guztiak oinarri hartu eta giza eskubideak aplikatuz gero, badago bidea elkarbizitza zuzenago, inklusiboago eta askeagoa lantzen laguntzeko.

Eta arlo haietako bat bera ere ez dugu utzi behar geure erantzukizun garrantziko horretatik kanpo.



6.- Donostiara elkartutako hiriek geure egiten ditugu helburu horiek, baita sarean lan egitea adosten ere, hirietako teknikariek eta politikariek elkarrekin informazioa partekatu eta proiektuak, praktika onak eta esperientziak trukatzeko asmoz.

Ildo horretatik, datorren urtean ere jarraituko dugu egiten elkarbizitzaren kulturari, giza eskubideak zaintzeari eta balio demokratikoetan hezteko programei buruzko ikertze eta segimendu jardunaldiak.

Era berean, elkarri lagunduko diogu geure hiriekin zerikusia duten baketze eta adiskidetze prozesuetan, eta lankidetzaz nahiz garapen politika deszentralizatuak bultzatuko ditugu.

7.- Adostu egiten dugu, gainera, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxe hau izatea Adierazpen honen konpromisoa geureganaturiko hirien, giza eskubideen institutuen eta esperientzia alternatiboetan lan egiten duten erakunde komunitarioen arteko komunikazioa koordinatuko duena, beste hiri batzuk ere atxikiko zaizkiolakoan.

Eta eginkizun hauetan CGLUko Gizarte Inklusio, Demokrazia Esku-hartzaile eta Giza Eskubideen Batzordearen eta FEMP erakundeek ekarpen garrantzitsua ere bidaide izan nahi dugu.

Donostia, 2010eko abenduaren 14a